



---

# CIRQUE DÉJÀ VU

## DOSSIER PEDAGOGIKOA

---

1. Fitxa artistikoa
2. BALDUFA konpainia
3. Ikuskizuna
4. Argudioa
5. Proposamen didaktikoak
6. Gomendagarritzko bibliografia

**Autorea:** Baldufa

**Zuzendaritza:** Ramon Molins, Luis Zornoza Boy eta Baldufa

**Musika:** Oscar Roig

**Diseinu eszenografikoa:** Carles Pijuan

**Jantziak:** Teresa Ortega

**Antzezleak:**

- Anselmo (Carles Pijuan edo Ferran López)
- Fausto (Enric Blasi edo Emiliano Pardo)

**Argi diseinua:** Anjos Fernández

**Produkzioa:** La Baldufa

**Koprodukzioa:** INAEM, Generalitat de Catalunya (ICIC), Lleidako Diputazioa (IEI), Lleidako Udaletxea (IMAC)

**Laguntza lanetan:** Ramon Llull Institutua

**Companyia de Comediants La Baldufa** Lleidan 1996an jaiotzen da. Konpainiaren helburu nagusiak kalitate handiko ikuskizun artistikoak eskeintzea da, inoiz ez beraien obrak ezaugarritzen duten umorea galdu barik; ahal diren errekurtsio teatral gehienak erabiliz ikuskizun multidisziplinarrak sortzea; ikuslego guztiendako ikuskizunak eskeintzea, haurrendako batez ere; eta solidaritate, tolerantzia eta errespetu balore konpromezu ideologikoa daukaten ikuskizunak sortzea. Baldufako kide sortzaileak Carles Benseny, Enric Blasi, Emiliano Pardo eta Carles Pijuan dira

Urte hauetan hurrengo antzezpenak aurrera eramán dituzte:

- ***Per riure?... 3 porquets a la platja!*** (Kontaketa herrikoitik clown adptazioa, 1996)
- ***El Catitau dels Carallots*** (Kaleko ikuskizun ibiltaria, 1997)
- ***Filibusters*** (Kaleko ikuskizun ibiltaria, 1998)
- ***Les faules d'en Pinyot i en Carabassot*** (Txontxongilo ikuskizuna, 1999)
- ***Les aventures del Baró de Munchausen*** (Txontxongilo ikuskizuna, 1999)
- ***Catacrack*** (Keinu umorea, 2001)
- ***Embolíc a la granja*** (Txontxongilo ikuskizuna, 2004)
- ***Zèppelin*** (Kaleko ikuskizun ibiltaria, 2004)
- ***El Circ dels ninots*** (Antzerki eta txontxongilo ikuskizuna, 2006)
- ***El Llibre imaginari*** (Antzeki ikuskizun multidisziplinarra, 2006)
- ***Nautilus, el carrousel del mar*** (Instalazioa, 2008)
- ***Drago*** (Kaleko ikuskizun ibiltaria, 2008)
- ***Cirque déjà vu*** (Antzerki eta txontxongilo ikuskizuna 2009)

Hezkuntzan ere lan egin dute, sustapenak, inaugurazioak eta bestelako produkzioak egin dituzte entitate eta empresa ezberdinen enkarguaz. Ikuskizuneko bestelako konpainia eta profesionalekin elkarlanean aritu dira Marcel·Í Antúnez, La Fura dels Baus, Titiriteros de Binefar, Comediants... bezalakoak.

Egindako ikuskizunetatik espainiar geografiaren inguruan sariak lortu dituzte, horietatik azpimarratu daitezkeenak: *sari berezia* jaso dute, al de batetik *Embolíc a la Granja* duen eduki didaktikoagatik eta bestetik Lleidako 15. Txontxongilo Firak (2004) eszenan duen kokapenagatik; *Llibre Imaginari* del Festival de Feten, Gijón (2008) liburuak espazio eszeniko hoberenarentzako saria jaso du; ikuskizun hoberenarentzako saria *Aventures del Baró de Munchausen*-arentzat izan da, Gijonen egiten den Festival de Feten (febrer 2001).

Azkeneko urteetan European zehar ibili dira, eta ezagunak diren **jaialdi internazional ezberdinetan** parte hartu dute, horien artean: Humorologie Belgikan; Mostra Internacional de Artes para o pequeno publico de Sementes Portugalen; Festival Mondial des Theatres des Marionnettes de Charleville Frantzian; Festival Internacional du Théâtre de Rue d'Aurillac

Frantzian; Sziget Festival Budapest Hungarian; Festival Au Bonheur des Mômes Frantzian; Festival Deventer op Stelten als Holandan; Fira del Llibre de Frankfurt Alemanian; Norwich Puppet Festival Round-up al Britainia Haundian; Le Chainon Manquant Frantzian; Festival Shöne Aussicht, Stuttgart Alemanian; Colpi di Scena, Faenza Italian.

*Cirque Déjà Vu* Baldufa konpainiak eskaintzen digun azkeneko ikuskizuna da. Formatu ertaineko antzezlan bat da, antzerki generu ezberdinak konbinatzen dituena: txontxongilo zapalak, maskarak, eskularruzko txontxongiloak, irudi artikulatuak, itzal txinatarrak eta aktore lana.



Baldufak egin dituen ikuskizun guztiak bezalaxe haurren imaginazioa indartzen du, ez da kontaketa itxi bat, irakurketa bakarrarekin, baizik eta sorrarazi, iradoki, apuntatu egiten du gure haurren asmamena eta trebetasuna hazteko helburuarekin.

Beraien bestelako produkzioetan bezalaxe, (batez ere *El Llibre Imaginari*, 2007) konpainiak, lengoai ezberdinak erabiltzen ditu: entzumenezkoak, plastikozkoak eta eszenikoak.

Entzumen mailan nabaritu dezakegu: momentu bakarrean eta erabat erabakigarria den ahotsaren erabilera off moduan, bi pertsonaien ahotsa-erregistru ezberdinetan-eta kontakizuna kokatzen laguntzen duten barietate ezberdineko soinu eta musikak.

Hizkera eszenikoari dagokionez, eszenografia denbora pasa modu magistralean laburbiltzen duela esan behar dugu: ikuskizuna bi denbora narratiboetan antolatuta dago (oraina eta iragana) eta ikuslea agerraldi bakoitza igarotzen den momentua argi ikustarazteko elementu eta egoerak erabiltzen dira.

Antzezlana bi protagonistak bizi diren zirku gurdi batean igarotzen da, eta honen mugimenduak momentuan kokatzen laguntzen gaituzte: aurrekoa iragana erakusten du,



gazteak eta zirkua egiten zuten garaia, eta atzekoak, bi aitonak orain bizi diren bezala aurkezten digu.

Jantziek, pertsonaien ahotsek eta erritmoa, denbora pasa antzezten ere laguntzen dute.



Ikuskizunak, lehenik eta behin, nostalgia kondaira bat azaltzen digu: bi pertsona heldu beraien iragana gogoratzen dute, beraien gaztaro garai amankomunak.

Horretaz gain laguntasun kondaira bat kontatzen digu, bien artean dauden eta egon diren lotura afektiboak agerian jartzen dituenak.

Azkenik, zirkuan eta arte eszenikoetan dabilen jendearen omena antzezten du, orokorrean, zirku zenbaki askotan eta erabiltzen diren errekurso ezberdinetan manifestuan jartzen dena.

Azaltzen den istorioak jende helduarako errespetua piztea du helburu, laguntasunaren balorea agerian jarriz eta horrekin batera, neska eta mutilak zirku artean, eta tradizioen hala nola iraganeko jokuen kontserbazioan interesa izan dezaten laguntzen du.

**Cirque déjà vu** bi aitonen istorioa azaltzen du, aspaldiko antzezle ibiltariak: Anselmo eta Fausto alegia.

Jantzi, txontxongilo, magia joku eta bestelako objektu ezberdinez betetako beraien karabana zaharrean bizi dira, non gazteak zirenean herriz herri zihoazen heldu eta gazteak entretenituz, beraien ilusioa zirku zenbaki txikien bitartez helaraziz.

Tristurarekin beraien denbora onenak, lanaren gogortasuna eta beraien amodioak gogorarazten dituzte. Urteekin, oso ondo izkutatutako altxorra gordeta izan dutela aditzera emango duten oroitzapenak: beren adiskidetasuna

Edozein goiz batean, oroimen hauek eteten dira: Anselmo gaixorik dago. Bere oroimenak ihesean dijoaz eta orain ezer ez da lehen bezala.

Gaixotasun neurodegeneratibo bat du; alzheimerra alegia. Inoiz ez da lehen bezala izango.





Egunero Anselmo aitona karabana zaharraren txoko guztiak errazten ditu, betertz triste eta makalarekin; bere ohituretan murgilduta, orduak bere inguruan galtzen dira...

Faustok, Anselmok iraganeko esperientziak sentiarazteko ardura hartuko du, bizitako egoerak gogoratzeko helburuarekin... "d'jà vu": ia ikusita.

Eta gogoratzen hasteko, egun batean Fausto opari batekin iristen da. Jostailu bat da, gazteak zirenean bezalako karabana, herriak eta hiriak igarotzen zutenekoa bezalakoa eta non beraien zirku ibiltariarekin jarduten zutenekoa, beti izan duten ametsarekin: ikuskizunaren mundua:

Hemendik aurrera kontaketa oraina eta iraganaren arteko joan etorrian mugituko da, oroimen eta errealitatearen artean, ikuskizunaren poza eta gaixotasunaren tristuraren artean, beti ere urteetan zehar piztutako laguntasunaz inguratuta.

Umorea zein samurtasuna etengabe matentzen diren zirku momentu ezberdinak gertatzen dira bata bestearen atzetik: fakirra, elefante hezlea, akrobata, eta azkenik pailazoak.

Eta pailazoen oroimenarekin iragana eta oraina apurtzen da, beraien zenbaki onena birgogoratzuz: non Anselmok bere ausentzia luzean agerian jartzen du argialdi momentu bat. Amaiera, ezinbestekoa da, Baldufak ez du egoera desitxuratzen, ez du itxaropen faltsurik esnatzen. Alzheimerrean atzera joaterik ez dagoela dauden ebidentziekin apurtzeko igarpena, zintzotasuna eta asmoak ditu



Eskaintzen dizuegun ikuskizunak etekin didaktikoko aukera ezberdinak aurkezten ditu. Gure aurrean ditugun neska eta mutilen adinak, beraien interesa eta bizipen pertsonalak -alzheimerren kasuan batez ere- egin dezakegun lana baldintzatzen du, bai teatrura joan aurretik zein ondoren

Erreflexio eta lan aukerak eskeintzen ditu, kontaketatik eratorritako gaiekin erlazionatuak: iragana, laguntasuna eta beste ordena batean, zirkua.

Antzezlanak eskeintzen digun aukeraz gozatua pena merezi du neska eta mutilen artean elkarrizketa eta eztabaida bultzatzeko, beraien sentimenduak adieraziz, beraien eritzia manifestatuz, eta honela beraien izaera lortzen lagundu, beraien pertsonalitatea.

### **5.1 Antzerkira joan aurretik**

**1.** Ikaslegoa kokatzea beharrezkoa da: azaldu behar da nora dijoazen eta zer da ikusiko dutena. Haurrak aurre informazio ariketa hau egiten ohitu behar dira, helduak, beharrezkoa dena ezagutzeko helburuarekin, egunkari kritika, triptiko bat irakurtzen dugun bezala edo lagunen edota irratiko ikuskizun baten gomendioa entzuten dugun bezalaxe.

Argudioa ez da zertan zehaztu behar. Zer ikustera goaz? galderari erantzuna ematea beharrezkoa da bakarrik (adibidez -momentu honetan jorratzen ari garenekin- antzerkira goaz bi aitonen istorioa ikustera, gazteak zirenean zirkuan lan egin eta orain beraien gazte garaiek gogoratzen dutenena. Baina zerbait dago hori eragotziko diena...)

Neska eta mutilen adinaren arabera (eta batez ere txikiak izatekotan) ikuskizunaren bi narrazio aldiei erreferentzia egitea beharrezkoa izango da. Badaude orain gertatzen diren gauzak, eta aspaldi pasa ziren beste batzuk, eta tartekatzen dijoaz.

**2.** Daukagun erronketako bat, ikusleak hezitzearena da, neska eta mutilen ikusle izaten erakustea.

Horrek jarrera egokia eduki behar izana inplikatzeko du, gizalege eta beneragarrizko jarrera: ixilean egon behar dira, ondo eserita, beren inguruan dauden pertsonak -aurrekoak eta atzekoak- eta aktoreen lana errespetatu, antzezlanean zehar beraien -ikaslegoa- denbora atsegin bat pasa dezaten lanean dabiltzatenei.

Lehenengo momentutik erne egon daitezten lortzen baldin badugu, argudioa hobeto ulertzea ziurtatzen dugu eta horrekin batera ikuskizunaz gehio gozatzea.



## **5.2 Antzezpenean zehar**

Ikuslego gaztearendako enkargu txikiak egin ditzakegu, errepresentazioan zehar ikustean ari duten elementu-egoera-aspekturen batean arreta berezia jar ditzaten.

- Talde batek Anselmon arreta ipini dezake. Badaude egoerak gaixorik dagoela agerian jartzen dutena. Bi (edo hiru) gogoratzea gero azaltzeko.
- Beste talde batek Anselmoren laguna den Faustoren jarreran arreta ipini dezake. Faustok, bere laguna den Anselmo, iraganeko gauzak eta pozik egon dadin laguntzeko asmoa hartzen du. Ikasleak bere lagunagaz egiten dituen bi (edota hiru) ekintza oroitu beharko dituzte.
- Azkeneko taldeak zirkuan arreta ipini dezake, zirkuko momentu ezberdinetan. Gero beraiek ikusitako zirkua, bestelako egoeratan, gaur erakusten diguten zirkuarekin antza daukan azaldu beharko dute: zer den berdina eta zer ez.

## **5.3 Antzezpenearen ondoren**

Lehen esan dugun bezalaxe, egiten ditugun proposamenek zuen mutil zein neskendako egokitu, gehio edo gutxiago egin ditzakezue: zuek zarete ezagutzen dituzuenak eta atera dezakezuten errendimendua dakizutenak.

**1.** Eskolara bueltatzerakoan eta lana kokatzeko, lehenik eta behin hurrek argudioa ulertu dutela ziurtatu beharko gara, istorioaren ildoak jarraitu dutela. Beraz, talde guztiaren parte hartzearekin, antzezpenearen gidoia berriz ere egitea proposatzen dizuegu, **guztion artean argudioaren ildoak azaltzea**, narratibatik jaso dutena. Behin ulermena konprobatuta, erreflexioa hasiko dugu.

**2. Protagonistak diren pertsonaia biak aitona dira:** helduak dira oso eta ia ez dute lanik egiten, iraganean pentsatzen dute bakarrik, egiten zituzten gauzetan, gustoko zutena, ondo pasatzen zuten gauzetan.

Gure haurren aitona-amonetaz hitz egin dezakegu, baldin badauzkate edo ez, ziurrenik gurasoengandik berreskuratu dezakegu beraien bizitza.

Orokorrean, aitona amonak familietan topa ditzakegu eta duten kondizioagatik bilobekin erlaxatzen dira, baina hurrek gutxitan ezagutzen dute beraiek gazteak zireneko bizitza: zertan lan egiten zuten, zer zuten gustoko, nola bizitzen ziren, zeintzuk ziren beraien lagunak...

Iturri bat dauzkazute hemen, jarduera ezberdin askorekin:

- Haurren aitona amonak hobeto ezagutzeko inkesta bat pasa.

Izena	...aiton/amona da	Jaiotako urtea	Lekua	Ikasketak	Lana	Zaletasunak

- Zuen egoeran aipagarriak izango diren inkestaren aspektuak alde batera utzi: zeintzuk eduki dituzte ikasketak. Ze adinarekin hasi ziren lanean. Lan motak. Zituzten zaletasun eta interesak. Zertan igarotzen zuten denbora (telebistarik ez zegoen eta). Amonak gogoan izan: ziur josi, bordatu egin dutela... eta askok ez dute aintzakotzat hartzen.

- Aitona amonei beren iraganeko oroitzapen adierazgarri bat gogoraraztea eskaiezue: atsegina den bat eta modu desatseginean gogorarazten duten besteren bat.

- Zerbait materiala edo berezia kontserbatzen dute: argazkiren bat, jostailuren bat, libururen bat, istorioren bat, kolezionatzen zuten objekturen bat...? Erakustaldi txiki bat egin dezakegu: "Gure aitona amonen bizitza".

- Jaso dituzuen ekarpenetatik, aitona edo amonaren bat etortzea bultzatu dezakezute, kontaketa, gertaldi, bizipen, joku, sukalde errezeta bat... azaldu dezan.

- Jaioterria: aipamen berezia egin dezakezue eta jatorri ezberdinetatik datozela ikusi (Katalunia beti iragan lurraldetzat hartu izan da: beti egon da leku batetik besterako biztanle mugimendua) eta ikaslegoa topikoren bat apurtzen lagundu.

- Azkenik, kontuan izan aitona amonez gain, azaltzeko gogoekin birraitona eta birramonak daudela, zeintzuk beraien bizitza eskolan sartzeko aukera gutxi duten.



**Orain aspekturen batean arreta jarri duten taldeei protagonismoa emateko momentu da: eztabaida bultzatu eta neska eta mutil gehiengoak berea esan ditzaten ahalegindu.**

### **3. Anselmo pertsonaian arreta ipini duen taldearen momentua da.**

Gaixorik dagoela ikusi dute. Ze momentutan edo jarreratan adierazten duen. Badakite zer den gertatzen zaiona? Gaixotasun bera duen pertsonaren bat ezagutzen dute?

"Alzheimerra: pairatzen duten pertsonen memoria galdu egiten duen gaixotasuna da, eta segun eta nola baita adimena ere. Pertsonak iparra galtzera eta despistatzera eramaten ditu...Definitiboki gauza arraro asko..."(1)

Elkarrizketa asko aldatu daiteke haurren batek bere familian alzheimerra pairatzen duen pertsonen bat baldin badu, edota gaixoeekin lan egiten duen ezagunen bat. Pena merezi du elkarrizketari ahalik eta probetxu gehien ateratzea, guztioi ezagutzera edota behar duteni aditzera emateko.

"Gaixoentzat, beraiekin bizi diren pertsonen afektua, samurtasuna eta pazientzia dira hobe datorkiena. Pazientzia batez ere..."(1)

Bibliografian, azkenean, aipatzen dizkizuegun "La Caixa" Fundazioak egin dituen kontaketak, lan egiteko tresna egokiak dira.

(1) Joles Senell: *La fada de l'Alzheimer*



#### 4. Fausto, laguna

Faustoren jarrera jarraitu duten neska eta mutilek -funtzioan zehar "agindua" eman diegunein- beraien behaketa eta iritziekin has daitezke, eta besteak gehitu egin daitezke.

Zer da Faustok bere lagunagatik egiten duena? Zer da zuek egingo zenuketena? Zer da adiskidetasuna? Zer errepresentatzen du mutil lagun/neska lagun/talde lagun on bat izatea? Zer dakar berarekin laguna izatea? Zer da zuek lagun bat izateko -eta mantentzeko- egiten duzuten?

"Lagun bat duena altxor bat dauka" dio esaerak, baina guztiok etsipen istorioetaz -eta errealtateetaz- jakin badakigu, tradizio txikietaz, gezurretaz, lagun bat galtzeko sufrimenduz.

Beste proposamenten bezalaxe, haurren adina eta aurreko esperientziekin eztabaidaren probetxua, norabidea eta sakontasuna zehazten dute.

Txikienak lagunak edukitzea gauza natural bat dela pentsa dezakete, guztiok lagunak dauzkagula... Gogoratu dezakezute (beti dago aukeraren bat kontaketak azaltzeko) "L'aneguet lleig" kontaketa. Rol joku bat sortu dezakezute Aneguet pertsoniarekin, empatia hartu ahal izateko: albora uztearen eta baztertze sententzio ezberdinak izan ditzaten.

#### 5. Zirkua. Zirkuaren mundua

Aukera asko dauzkagu hemen azaldu ahal izateko.

Antzezlanaren zirku numeroetan arreta berezia ipini duten neska eta mutilen taldeak giatuko gaitu: zer da ikusi dutena? Ziur bestelako zirkuak ikusi dituztela... ze berdintasun eta ezberdintasunak nabarmendu ditzakete? zein izan da gehien gustatu zaien antzezlanana?... Beste ikaskideek





elkarrizketan parte hartuko dute eta beraien iritzia proposatzen joango dira.

**Proposamenak:**

- Fausto eta Anselmok, beste gauzen artean, egiten zituzten emanaldietan, itzalen erabilerara jotzen zuten...itzalen teatrua ezagutzera eman dezakezute.

-Zirku munduarekin erlazionatutak dauden profesioetaz hitz egin. Txerpolariak, malabaristak, animala hezitzaileak, aurkezleak, musikariak, pailazoak, maguak... Istorioak, liburuak bilatu liburutegian zirkua gai zentralizat dutenak.

ETA ZER IRUDITZEN ZAIZUE ZIRKU BAT EGITEA? Klase guztiaren artean errepresentazio bat egitea?Bikoteka edo hirukoteka zenbaki ezberdinak prestatzea, paperak banatu (ez ahaztu iragartzeko kartelak egin behar direla, sarrerak), jantziak bilatu, dekorazioa prestatu...antzezlanaren eszenografia gogoratzea lagungarria izan daiteke. Heziketa fisikoko, begi heziketa zein plastikakoa, musikako...irakaslegoa, guztiok parte hartu dezake, guztion laguntza izan dezakezute.

Eta noski, ikuslegoa beharko da. Eta nola ez neska eta mutilen aiton amonak baldin badira!

Obra Social Fundació "la Caixa"ren argitalpenak. Giza eta asistentziazko proiektuen departamendua:

Carbó, Joaquim. *L'escarabat de l'avi Quim*. (6-12 urte bitartean)

Carbó, Joaquim. *L'últim joc de mans*. (6-12 urte bitartean)

Carbó, Joaquim. *La veïna d'en Miquelet* (6-12 urte bitartean)

Senell, Joles. *La fada de l'Alzheimer* (6-12 urte bitartean)

Arànega, Mercè. *La meva àvia és diferent*. (6-8 urte bitartean)

Fundazio honek, *El meu avi es únic* izeneko gida bat egin du, txikienak Alzheimer gaixotasunaren ulerkuntzan orientatzeko moduan. Gaur egun agortuta dago eta bakarrik liburutegietan aurki daiteke.


PENSA-HI bilduma. Editorial Cruilla. (Titulu ezberdinak)

- *La veritat i la mentida*

- *La felicitat i la tristesa*

[www.memoro.org](http://www.memoro.org)

Memoriaren lekua. Lau gazte italiarrek sorturiko erakundea da: memoria leku bat, non pertsona ezberdinek beren bizitzan zehar izan dituzten oroitzapenak azaltzen dituzten, galdu nahi ez dituztenak.



# PINOCCHIO

COMPANYIA DE COMEDIANTS LA BALDUFA

CARRER DE MÚSIC VIVALDI 12 BX | 25003 LLEIDA, ESPAÑA

T: +34 973 281 457 | +34 649 985 052

[www.labaldufateatre.com](http://www.labaldufateatre.com) | [baldufa@labaldufateatre.com](mailto:baldufa@labaldufateatre.com)

